**Bizkaiko Foru Aldundiaren XXXX/2016 FORU DEKRETUA, ren ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira 2017ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketei dagokienez ezartzen duenaren arabera, erregelamendu bidez finkatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da ondare-elementuen eskuratze-balioa. Horretarako, zera hartuko da, batik bat, kontuan: ea zer bilakaera izan duen kontsumorako prezioen indizeak ondare-elementuok eskuratu ziren egunetik eta ea zer bilakaera espero den elementuok eskualdatuko diren ekitaldirako.

Hori dela eta, 2017ko ekitaldian egiten diren eskualdaketetan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzen dira foru-dekretu honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren mendean dauden ondare-irabazien edo -galeren zenbatekoa kalkulatzeko.

Beste alde batetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan xedatzen denaren arabera, ibilgetu material edo ukiezinaren zein ibilgetuko inbertsioen ondare-elementuak eskualdatzetik lortutako errenta

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia /2016, de de, por el que se aprueban los coeficientes de actualización aplicables en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre Sociedades a las transmisiones que se efectúen en el ejercicio 2017.**

La Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, establece que, en el supuesto de transmisiones onerosas o lucrativas, el valor de adquisición de los correspondientes elementos patrimoniales se actualizará mediante la aplicación de los coeficientes que se aprueben reglamentariamente, atendiendo principalmente a la evolución del índice de precios del consumo producida desde la fecha de su adquisición y de la estimada para el ejercicio de su transmisión.

Por este motivo, el presente Decreto Foral tiene por objeto establecer los referidos coeficientes de actualización aplicables a aquellas transmisiones que tengan lugar en el ejercicio 2017, con el fin de calcular el importe de las ganancias o pérdidas patrimoniales sujetas al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Por otro lado, la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, dispone que a los efectos de integrar en la base imponible las rentas positivas, obtenidas en la transmisión de elementos patrimoniales del inmovilizado

Tramitazio bidean
En tramitación

positiboak zerga-oinarrian sartzeko, errenta horietatik honako hau kenduko da, eta betiere errenta horien mugarekin: eskualdatutako elementuari dagokienez, haren legezko azken eguneratpen baimendutik edo, geroago eskuratua bada, elementua eskuratu zen egunetik gertatu den monetaren balio-galeraren zenbatekoa, erregela jakin batzuen arabera kalkulatua. Hona lehen erregela: eskualdatutako ondare-elementuen eta haiei dagozkien amortizazioen eskuraketa-prezioa edo ekoizpen-kostua eta arau bidez ezartzen diren koefizienteak biderkatuko dira.

Beraz, foru-dekretu honen helburua da, batetik, arautegia garatzea eta, bestetik, 2017. urtean hasiko diren zergaldietan egiten diren eskualdaketei aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzea.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

material, intangible o inversiones inmobiliarias, se deducirá hasta el límite de dichas rentas el importe de la depreciación monetaria producida desde la última actualización legal autorizada respecto al elemento transmitido o desde el día que se adquirió el mismo, si es posterior, calculada de acuerdo con ciertas reglas. La primera de éstas establece que se multiplicará el precio de adquisición o coste de producción de los elementos patrimoniales transmitidos y las amortizaciones acumuladas relativas a los mismos por los coeficientes que se establezcan reglamentariamente.

En consecuencia, es objeto del presente Decreto Foral llevar a cabo dicho desarrollo reglamentario, estableciendo los mencionados coeficientes para ser aplicados a las transmisiones realizadas dentro de los períodos impositivos que se inicien durante el año 2017.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Tramitazio bidean
En tramitación

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2016ko …………ren XX(e)ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DA

**1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2017. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak.**

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketen xede diren ondare-elementuen eskuratze-balioa zehazteari buruz xedatzen duena betetzeko, ondoren adierazten diren eguneratze-koefizienteak aplikatuko zaizkie 2017ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei:

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de de de 2016,

SE DISPONE

**Artículo 1. Coeficientes de corrección monetaria aplicables en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para el año 2017.**

Uno. A los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, para la determinación del valor de adquisición de los elementos patrimoniales en el caso de transmisiones onerosas o lucrativas, los coeficientes de actualización aplicables a las transmisiones realizadas en el ejercicio 2017, serán los siguientes:

| Ekitaldiak/Ejercicios | Koefizienteak/Coeficientes |
|---|---|
| 1994 eta aurrekoak / 1994 y anteriores | 1,569 |
| 1995 | 1,666 |
| 1996 | 1,605 |
| 1997 | 1,569 |
| 1998 | 1,534 |
| 1999 | 1,492 |
| 2000 | 1,442 |
| 2001 | 1,388 |
| 2002 | 1,339 |
| 2003 | 1,302 |

Tramitazio bidean
En tramitación

| | |
|---|---|
| 2004 | 1,264 |
| 2005 | 1,224 |
| 2006 | 1,183 |
| 2007 | 1,151 |
| 2008 | 1,105 |
| 2009 | 1,102 |
| 2010 | 1,084 |
| 2011 | 1,051 |
| 2012 | 1,028 |
| 2013 | 1,012 |
| 2014 | 1,010 |
| 2015 | 1,010 |
| 2016 | 1,010 |
| 2017 | 1,000 |

Bi. Hala ere, ondare-elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratua bada, 1995eko koefizientea aplikatuko da.

Dos. No obstante, cuando el elemento patrimonial hubiese sido adquirido el 31 de diciembre de 1994 será de aplicación el coeficiente de actualización correspondiente a 1995.

**2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergan 2017. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak.**

**Artículo 2. Coeficientes de corrección monetaria aplicables en el Impuesto sobre Sociedades para el año 2017.**

Bat. 2017. urtean hasiko diren zergaldietan, honako hauek izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan aurrez ikusten diren koefizienteak:

Uno. Con efectos para los períodos impositivos que se inicien durante el año 2017, los coeficientes de corrección monetaria previstos en la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, serán los siguientes:

| Ekitaldiak/Ejercicios | Koefizienteak/Coeficientes |
|---|---|
| 1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak / Con anterioridad a 1 de enero de 1984 | 2,446 |
| 1984 | 2,222 |
| 1985 | 2,051 |

Tramitazio bidean
En tramitación

| | |
|---|---|
| 1986 | 1,931 |
| 1987 | 1,839 |
| 1988 | 1,757 |
| 1989 | 1,673 |
| 1990 | 1,608 |
| 1991 | 1,554 |
| 1992 | 1,507 |
| 1993 | 1,494 |
| 1994 | 1,465 |
| 1995 | 1,398 |
| 1996 | 1,348 |
| 1997 | 1,326 |
| 1998 | 1,380 |
| 1999 | 1,330 |
| 2000 | 1,241 |
| 2001 | 1,223 |
| 2002 | 1,203 |
| 2003 | 1,185 |
| 2004 | 1,171 |
| 2005 | 1,149 |
| 2006 | 1,128 |
| 2007 | 1,089 |
| 2008 | 1,062 |
| 2009 | 1,051 |
| 2010 | 1,049 |
| 2011 | 1,036 |
| 2012 | 1,027 |
| 2013 | 1,021 |
| 2014 | 1,021 |
| 2015 | 1,015 |
| 2016 | 1,008 |
| 2017 | 1,000 |

Tramitazio bidean
En tramitación

**Bi**. Hona nola aplikatuko diren goiko zenbakian ezarritako koefizienteak:

a) Eskuraketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren gainean, ondare-elementua zein urtetan eskuratu edo ekoitzi zen kontuan

**Dos**. Los coeficientes establecidos en el apartado anterior se aplicarán en los siguientes términos:

a) Sobre el precio de adquisición o coste de producción, atendiendo al año de adquisición o producción del elemento

hartuta. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntzok egin diren urteari dagokiona izango da.

b) Amortizazioen gainean, egin diren urteko kontabilitatearen arabera.

AZKEN XEDAPENA

Foru-dekretu hau 2017ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2016ko ren XX(e)an

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

patrimonial. El coeficiente aplicable a las mejoras será el correspondiente al año en que se hubiesen realizado.

b) Sobre las amortizaciones contabilizadas atendiendo al año en que se realizaron.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día 1 de enero de 2017.

En Bilbao, a de ............de 2016

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Tramitazio bidean
En tramitación

Tramitazio bidean
En tramitación